

## **Euskerazko liburuak gomendatzeko txokoa, Kronikan**

**Doberak eta Udal Liburutegiak jarri dute martxan Literatur Txokoa. Egitasmoarekin bultzatu nahi dute, herritarrek euskeraz irakurtzea. Gaurkoan, bigarren gomendioa dakar Kronikak.**

Literatur Txokoa izeneko atal berria dauka Kronikak, urtarriletik. Txoko honetan, euskeraz idatzitako liburuei buruzko gomendioak egiteko aukera dute herritarrek. Dobera Euskara Elkarateak eta Udal Liburutegiak jarri dute martxan. Azpimarratu dutenez, edozein herritarrek hartu dezake parte egitasmo honetan: «Ez dute adituek egindako iruzkinak izan beharrik. Euskeraz idatzitako liburu bat gustatu bazaizu, gomendatzera animatzen zaitugu. Nahikoa da idaztea ze sentitu duzun, ze gustatu zaizun...». Izan ere, Dobera eta Liburutegiaren helburua honakoa da: «Herritarrek euskeraz irakurtzea bultzatu nahi dugu eta baita parte hartzea ere», diote.

### **Hilabeteko azken igandetan**

Literatur Txokoak hilabeteroko maiztasuna du. Hilabeteko azken igandetan argitaratuko dira herritarrek egindako gomendikoak Kronikan, 7garren orri honetan. Hasteko, urtarrilaren 27an Udal Liburutegiak egin zuen iruzkina. Bertol Arrietaren Alter ero liburua gomendatu zuen. Gaurko honetan, berriz, Ibon Idoiagak egin du gomendioa. Birgit Vanderbeck-en Muskuiluak afaltzeko liburua irakurtzera animatu nahi ditu herritarrek.

### **Iruzkin laburrak**

Iruzkinak edo gomendioak laburrak izan behar dute. 800 karaktere inguruko idatziak izango dira, gehienez. Idatzi horiek hainbat modutara entregatu daitezke: emailaz, dobera@dobera.com eta liburutegia@hernani.net helbideetara idatzita. Edo zuzenean Doberara edo Udal Liburutegira eramanda. Egilearen izen-abizenak jarri behar dira iruzkinetan.